

Deun-Kepa eta auzokide biyak

(IPUIN ZARA)

Neuri edestu ziraten bezela edestuko dizut, irakuf-lea.

Ara: Deun-Kepa beldua, (apostolua) Kisto'ren irakaskintza ludiyan zabaltzen zebilela, ekaitz-gau baten, eldu zan itxas-uri kaskañ batera; euriyak ziaro bustiya, bidetan nekatur, ta bial-izan aundiyan. Gizajoak, gaba igarotzeko atepia nairik, deitu zuan lenbizi arkiñu zuan etxean. Berau, senaf-emazte aberatz, afo, txindi-zaliena zan; eta atian deitzen zutela somatzian, jeiki ziran biyak, gustiz asefe leyora iftenik. Gizonak itandu zuan:

—¿Nor da gabaren ordu abetan guri lua galdu-erazozten ausaftzen dana?

—Jaungoikua ren izeneko bat—erantzun zuan apal Deun-Kepa'k.—Afen, eskatzen dizutet gaba igarotzeko atepia.

—¡Ez da ausardi makala! ¡Zuaz aguro emendik, bestela neure txakurak ezafiko dizkitzut!

Ta emazteak leyoa itxirik destañez esan zion.

—Gizontxua: zu bezelako arrote txiroak, of aurfeko etxe ortan bizi dira. Deitu zazu bertan.

Bertara ba, Deuna ixil ta apal zuzendu zan, atian deituaz. Beriala bafutik gizonazko abots batek erantzun zuan:

—Zerana zerala gure etxian deitzen dezun ori, zaude, ta irikiko dizut.

Ta atia zabal-zabal egiñik, befiz esan zion:

—Atoz bafura, gau izugari ontan aterperik ez dezun efukafi ori.

Gizonarenaz gañera, emakume-abots gozo bat entzun zan esanaz:

—Saftu zaite Jainko'ren izenian.

Emakume afeak eskuan zekafen kurutzeñu-argi zurbilera baño obeto ikusi al-izan zitun tximist-argitara Deun-Kepa'k gizon ta emakume bat bere aurfes-aufe ate zabalian. Abek afantzale senaf-emazteak ziran, txiroak gustiz, bañan doneak.

Eman zioten belduari beren oia, atsedan aftu zezan, ta berak su-ondoan gaba igaro zuten.

Ufengo goizian deunak eman zizkiyen eskerak esanaz:

—Egin dezuten efukizko egintza au Jauna'k ordainduko dizute; beraz, gauñ lenbizi asten zeraten lanian egun guzia emango dezute.

Senaf-emazteak Deun-Kepa'ren itzak ondo uleñtu ez -edo, beintzat etzituzten aintzat aftu. Ezertan asi baño len, emaztiak esan zion senafari:

—Bai-diruri gure gorputz aulduak zerbañ bizigafia eskatzen dutela; ¿ote-degu opil bat egiteko gaimel (oriyua) ta iriña erosteko aña txindi?

—Nere atzoko afantzaz—erantzun zuan sanafak—ona izan zan, ta sakelan ba-det txindi-apuf bat.

Eta mai zaftxo batera sakela usturik, asi ziran biyak zenbat txindi zuten zenbatzen. ¡Gauza arigafia! Berak zenbatu-ala, beñiro softzen zan sakelan txindia; ta orduan oroitu ziran belduaz, esan ziyela lenbizi asitzen ziran lanian igaroko zutela eguna. Txindia zenbatzen ba igaro zuten ta beñere ames-coin etzuten añaren iabe eoin ziran

Ufengo egunian zabaldu zan uri guzian gertatur, ta Deun-Kepa aftu nai izan etzuten senaf-emazte afoak gustiz damu izan zuten beren uts egitia. Bekaitzez, juan ziran afantzale senaf-emaztien etxera, eta eskatu zuten, afen, beldua ufengo zetofenean, beren etxera bidaltzeko, ba pozik ostatua emango ziyotela-ta.

♦ ♦ ♦

Aldi luzetxo bat igarota, biuftu zan befiz Deun-Kepa, eta afantzaliaren etxian lenago egin zioten afera onakin oroiturik, bertara zuzendu zan. Emen bañan esan zioten auzokidien naya, ta beldua jun zan lenago ostatu eman nai izan etziyoten ayen etxera.

Lenagoko destain ta itz-afo-ordez, zuri ta leunakin aftu zuten. Jafi zioten apan on ta oe edera, Deuna alik ondoen atzeko alegindurik. Ufengo goizian onek esan zion:

—Ostatua eman diazutenez, agindu dezakezue; nigan-dik loftu nai dezuterá esan.

Jauna—erantzun zuten—gauñ lenbizi asten geran lanian; eguna igarotzia, nai genduke.

—Ala izan dedila, ba.

Aguf-eginda aldendu zan Deun-Kepa. Bereaba semañ -emaztiak, pozez zorutzen, zioten:

—¡Gure zoriona! ¡Egun guzia txindia zenbatzen emango degu, ta lenaz gañera izango ditugun txinditzak...! ¡Inguru abetan aberatsenak izango gera! Asi gaitian zenbatzen ba, bañan ufetan, geyago onela izango degu.

Onetan, emaztiak begitu zion senafari, ta elkafekin eraman gutxi zutenenez, ekin zion zerbañ ere aseñatur:

—Gizona; lenaz gañera aberastu beañ degun ontan, pozaren pozak erdela dariozu epel ofek. Ba-dakit txindia zenbatzen asita gero, orixe kentzen astiya galdu bial dezuna.

—Andria; ni epela ba-naiz zu zikiña; ez dezu dindifia makala sudurian. Zeofek ori kentzen astiya galduko ote-dezun, bilduf naiz.

—¿Ni zikiña? ¡Neure ezefleku au jauñti beañ nizuke ori esan dirazulako!

—Nik ba neuria jauñtiko dizut epela deituaz iraindu nazu-ta.

Esan ta egin, jauñti zion senafak emaztiafi eseflekua burura; onek egin zion senafari beste-ainbeste, ta ekin zioten bufuka biziyen.

Lenbizi asitako lanian eguna igaro nai izan zutenenez, guzia, ba, bufukan eman zuten. Elkañ mankatu, etxe trastiak ondatu, txindiak ugaritu ez bañan, gutxitxu zituzten beren buruak osatu ta etzeko basterak konpontzen.

♦ ♦ ♦

Jauna'gandik sariya loftu nai ba-degu, izan gaitian afantzale senaf-emaztien eran, apal, efukiofak; ta ez beren auzokidien eran, afo, doñor, ta efukigeak.

TENE.

Lasteñtxu ageñtuko da

LANDIBAR

Eleizalde'tañ Koldobika'k idatziñako edestixun (novela) polit aberkoya.

Ez itxi irakurri-horik